

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Hitzarmena, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren (IVAP) eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen artekoa, hizkuntza prestakuntza eta normalizazioaren arloan izenpetzekoa (Kanpezuko Udalaren eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren artekoa)

Iragarki honen bidez jakinarazten da 2025eko urtarrilaren 20ko osoko bilkuraren erabakia, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren (IVAP) eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen artean (Kanpezuko Udalaren eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren artean) hizkuntza prestakuntzaren eta normalizazioaren arloan sinatuko den lankidetzaren hitzarmena onesteari buruzkoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean (SPAJL) aurreikusitakoaren arabera. Honela dio, hitzez hitz:

Partaideak

Batetik, Nagore Alberdi Berasaluze, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Koordinazio eta Kudeaketako idazkari eta ordezkari gisa, eta, bestetik, Ibernalo Basterra Txasko, Kanpezuko Udaleko alkate eta ordezkari gisa.

Honakoa adierazten dute

Elkarri nortasun juridikoa aitortzen diotela hitzarmen hau izenpetzeko, eta beronen helburua dela sinatzaile den erakunde publikoko enplegatu publikoek hizkuntza prestakuntzako ikastaroetara joateko aukera izatea.

Oinarri juridikoak

Lehenengoa. 10/1982 Legeak (Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak) aitortzen du herritar orok eskubidea duela euskara nahiz gaztelania erabiltzeko administrazio publikoarekiko harremanetan, eta, ondorioz, administrazioari agintzen dio eskubide hori gauza dezan.

Bigarrena. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, hizkuntza normalizazioari buruzko tituluan, 10/1982 Legean ezarritako printzipioak eta tresnak jasotzen ditu. Legeak, halaber, hizkuntza eskakizunak xedatzen ditu; horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko prozesuetan eta, oro har, hautaketa prozesuetan, irizpide objektiboak izango dira euskara maila baloratzeko.

Hirugarrena. Maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuak IVAPen egitura eta egitekoak arautzen ditu, eta 16. artikuluan 2.a apartatuan zehazten duenez, hizkuntza prestakuntzaren arloari dagokio, besteak beste, "foru administrazioekin, toki administrazioekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste ente batzuekin hizkuntza normalizazioaren arloko lankidetzaren hitzarmenak egitea".

Laugarrena. Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Agindua (aurrerantzean, 2005eko azaroaren 30eko Agindua) Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoari eskainiko dien hizkuntza prestakuntzako zerbitzua arautzen du. (Agindu horren bidez, halaber, euskara ikastaroetara doazen udal langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak ezartzen dira).

Bosgarrena. Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 9/2024 Dekretuak indargabeturik utzi zuen 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena. Era berean, IVAPentzat egokitzealdi bat ezarri zuen laugarren xedapen

iragankorraren 7. puntuan, honela: "2025eko urtarrilaren 1era arteko epea izango du dekretu honetan jasotako aurreikuspenetara egokitzeko". Ondorioz, egokitzapen hori egiten ez den bitartean, dekretuaren 5. artikuluko 3. puntuan xedatutakoak ez du eraginik izango hitzarmen honetan.

Klausulak

Lehenengoa. Kanpezuko Udalak onartuta dauka Hizkuntza Normalizazioko Plana; izan ere, aplikatu beharreko araudiaren arabera, nahitaezkoa da baldintza hori betetzea eta lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea.

Bigarrena. Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak eta Kanpezuko Udalak erabaki dute lankidetzaren aritzea udalaren hizkuntza normalizazioko lanetan. Hitzarmen honen xedea da euskalduntze/alfabetatzeko eta 4. hizkuntza eskakizuna prestatzeko ikastaroak antolatzea.

– Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak Kanpezuko Udalaren esku jarri ditu 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren I. kapituluaren jasotako hizkuntza prestakuntzako zerbitzuak.

– Langile bakoitzak 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren seigarren artikuluko 3. paragrafoan ezarritako parametroen arabera zehaztutako ordu kreditua izango du.

– Bi alderdiek ezagutzen dituzte 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren III. kapituluaren jasotako datu pertsonalen babesari buruzko xedapenak, eta hitzarmenaren bitartean bete egingo dituztela.

– Kanpezuko Udalak hitzarmen hau sinatzeak berekin dakar 2005eko azaroaren 30eko Aginduan ezarritako hizkuntza prestakuntzako zerbitzuak jaso ahal izateko baldintzak onartzea.

Hirugarrena. Lankidetzaren hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa izango da, sinatzen denetik kontatzen hasita. Alderdiek berariaz adostu ahal izango dute hitzarmena beste lau urtez luzatzea edo azkentzea.

Laugarrena. Hitzarmen hau bertan behera uzteko nahia adieraz lezake aldeetako edozeinek, bere aldetik, eta, hala eginez gero, bermatu egin beharko da hasitako jarduerak amaitu egingo direla. Nahi hori adierazi eta handik hiruhilabetera amaituko da hitzarmenaren indarraldia.

Bi aldeek, ados daudela adierazteko, hitzarmen hau sinatzen dute sinadura elektronikoa adierazten den egunean.

Santikurutze Kanpezu, 2025eko urtarrilaren 23a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO